

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

# **“12 asteko indar lan gehigarriaren eragina iraupen-lasterkari herrikoien errendimenduan”**

**Egilea: Oyarbide Ormazabal, Alexander**

**Zuzendaria: Santos Concejero, Jordan**

**JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA**

**2015-2016**

**DEIALDI OROKORRA**

## AURKIBIDEA

1.- LABURPENA.....	2
2.- SARRERA.....	3
2.1.- Aurrekariak.....	3
2.2.- Indarrean eragina duten aldagaiak zein entrenamendu motak.....	3
2.3.- Orain arteko literatura zientifikoa .....	9
2.4.- Justifikazioa .....	13
3.- METODOLOGIA .....	13
3.1.- Lagina .....	14
3.2.- Taldekatzea .....	14
3.3.- Datu-hartzeak.....	15
3.4.- Analisi estatistikoa .....	16
4.- EMAITZAK.....	16
4.1.- Erresistentzia taldea.....	16
4.2.- Indar taldea .....	17
4.3.- Taldeen arteko alderaketa .....	18
5.- EZTABAIDA.....	20
5.1.- Literatura zientifikoarekiko alderaketa .....	20
5.2.- Hipotesiaren aurkako eragileak zein limitazioak .....	22
6.- ONDORIOAK .....	23
7.- ESKER-EMATEAK .....	24
8.- BIBLIOGRAFIA .....	24
9.- ERANSKINAK .....	29
9.1.- Etika komitearen agiria .....	29
9.2.- Partehartzaileentzako baimena .....	30
9.3.- MyJump app-aren erabilera .....	35

## 1.- LABURPENA

Ikerketa honen helburua erresistentziako entrenamendu bati loturiko 12 asteko indar lan gehigarriaren eragina aztertzea da iraupen-lasterkari herrikoietan. Horretarako, partehartzaileak bi talde ezberdinetan banatuko dira, talde bakoitzak entrenamendu ezberdin bat burutzen duelarik: talde batek erresistentziako entrenamendua egingo dute eta besteak erresistentziakoa eta indarrekoa. Taldeak ausaz egin ondoren hasierako frogak batzuk egingo dira, planifikazioaren amaierakoekin alderatzeko, hala nola: indarreko testak (High Jump, Squat Jump eta Countermovement Jump) eta erresistentziako frogak (Cooper). Hasierako zein amaierako frogak egin ondoren ikusi da indarreko entrenamendua egin ez dutenek beraien baloreak okertu edo mantendu dituztela indarreko testak osatzen zituzten HJ ( $198,75 \text{ cm} \pm 12,41 \text{ pre} - 199,75 \text{ cm} \pm 10,68 \text{ post}$ ), SJ ( $35,08 \text{ cm} \pm 3,63 \text{ pre} - 29,85 \text{ cm} \pm 3,95 \text{ post}$ ) eta CMJ-an ( $38,45 \text{ cm} \pm 5,60 \text{ pre} - 35,10 \text{ cm} \pm 5,08 \text{ post}$ ) eta hobetu erresistentziako frogak zen Coperrean ( $3082,5 \text{ m} \pm 125,79 \text{ pre} - 3205 \text{ m} \pm 42,03 \text{ post}$ ). Indarreko entrenamendu egin zutenek ordea beraien emaitzak mantendu edo hobetu zituzten HJ ( $203,25 \text{ cm} \pm 33,78 \text{ pre} - 210 \text{ cm} \pm 36,12 \text{ post}$ ), SJ ( $29,95 \text{ cm} \pm 7,04 \text{ pre} - 31,03 \text{ cm} \pm 5,70 \text{ post}$ ) eta CMJ ( $37,83 \text{ cm} \pm 12,31 \text{ pre} - 37,55 \text{ cm} \pm 9,37 \text{ post}$ ) indar testetan zein Cooper erresistentziako frogan ( $3292,5 \text{ m} \pm 123,65 \text{ pre} - 3315 \text{ m} \pm 46,54 \text{ post}$ ). Hala ere, aldagaien arteko ezberdintasuna aztertzerako garaian beraien arteko efektu tamaina txikia dela ikusi da, beraz esan dezakegu ez direla aldaketa esanguratsuak. Indarreko taldeak gehiago hobetu behar zuen gure hipotesiaren aurka, efektu tamaina handia izan dute indarreko entrenamendua egin ez duten taldeko hasierako zein amaierako Cooper frogak *Cohen's d*-ko 1,3ko balorearekin eta bi taldeen arteko amaierako Cooper frogak 2,48ko emaitzarekin, indarra egin ez dutenen alde. Datuen arabera esan daiteke indarreko entrenamenduak ez duela eragin positiborik korrikalari herrikoietan baina datu hauek ezin daitezke orokortu laginaren tamaina txikiagatik eta taldeen arteko heterogeneotasun maila altuagatik (*Cohen's d*-ko 1,04ko balioa taldeen adinean eta 1,75 10km-ko marka kontuan hartzen badugu), beraz indarraren inguruan gehiago ikertu behar da lagin handiagoak erabiliz.

## **2.- SARRERA**

### **2.1.- Aurrekariak**

Erresistentziako korrikalariak betidanik landu izan dute indarra, 60ko hamarkadatik hasita, non Arthur Lydiardek, zelandaberriko entrenatzaile famatuak, aldapa bidezko entrenamendua ezartzen zien bere korrikalari Lydiard, (A., eta Gilmour, G. ,2000), 80. Hamarkadan jarraituz, Sebastian Coe, Steve Ovett eta Steve Cramen entrenamendu pliometrika eta pisuen bidezko entrenamenduarekin (Martin, D. E., eta Coe, P. N. ,2007) eta atletismoaren historian egon den iraupen luzeko korrikalari onenatarikoak ere, Haile Gebrselassiek, entrenamendu pliometrika egiten zuen bere prestakuntzan zehar (Denison, J. ,2004). Kontua da elitean ulertzen dela indarraren entrenamenduak garrantzia izatea, azken finean eliteko kirolariak errendimendu gorena bilatzen dute eta hau gaitasun guztiak entrenatuz lortzen da. Korrikalari herrikoietan ordea, korrika beraien buruarekin gustura sentitzeko egiten dute eta gustuko duten jarduera fisiko bezala kontsideratzen dutenez, ez dira beste gaitasunen entrenamenduan zentratzen.


### **2.2.- Indarrean eragina duten aldagaiak zein entrenamendu motak**

Denok dakigu indarraren entrenamendua garrantzitsua dela eta indarraren lanketa erresistentzia komunitatearengatik onartua izan da. Beraz pisuak altxatzen baditugu gure errendimendua hobetuko dugu, baina nola? Zenbat indar entrenamendu behar da? Zein motatako indar ariketak?... Korrikalari herriko gehienek honelako galderak egiten dizkiote beraien buruari. Hala ere, korrikalariak galdetu ondoren, gehienek diote abdominalak edo “core”-a lantzen dutela, astean bi alditan normalean. Egia da “core”-ko giharrak ez dutela korrikako orduan partehartze handiena baina hau kirolari herrikoien jakintza ezagatik gertatzen da, nahiz eta “core”-ak korrikalarien errendimendua hobetzen duela ikusi artikuluren batean (Sato, K., eta Mokha, M. ,2009). Corea lantzea ere garrantzitsua da, beste indar entrenamendu gehigarriak bezala, baina indar mota batzuk beste batzuk baino hobeak dira. Honetaz gainera, korrikalari herrikoien pentsakeraren aurka eta nahiz eta korrikako keinuak uzteko errepikakor txikiak eragin; hainbat ikerketek diote (Karsten, B., Stevens, L., Colpus, M., Larumbe-Zabala, E., eta Naclerio, F. ,2016) indar maximoaren lanketak, pisu

astunekin eta errepikapen gutxirekin, korrikako errendimendua hobetzen duela. Beraz, corea zein pisu txikiekin egindako errepikapen askoko ariketak ez dira egokienak korrikako errendimendua hobetzeko.

Aurrekoarekin loturik, erresistentziako errendimendua hiru faktore fisiologikoren menpe dago:  $VO_2\text{max}$ -a, atalase anaerobikoa eta ekonomia. Hiru hauek gizabanakoen arteko erresistentzia errendimendu bariazioak azaltzen dituzte. Indar maximoaren entrenamenduaren ondorioz hiru faktore hauek hobetu daitezke eta garrantzia handiagoa hartzen du gaitasun aerobiko oso garatua daukaten kirolarietan, hobekuntza lortzeko estimulo gorenak lortzeko asmoarekin. Støren Ø, Helgerud J, Støa EA eta Hoff J.-ek 2008an egindako ikerketan indar maximoaren entrenamenduak lasterketa ekonomian eta nekeren agerpen denboran zuen eragina aztertu zuten. Ikerketa honetan parte hartu zuten korrikalariak, beraien erresistentzia entrenamenduaz gainera, 8 asteko iraupena zuen indar maximoko entrenamendua egin zuten astero 3 saio eginez, saio bakoitzean "sentadilla"-erdi ariketako 4 errepikapenez osaturiko 4 serie eginez. Ikerlariak ikusi zuten, nahiz eta gorputz masa eta  $VO_2\text{max}$ -ean aldaketarik ez eman, korrikalariak lasterketa ekonomia eta nekearen agerpen denbora hobetu zuten. Hori dela eta, ikerketa honek erakusten du indar maximoko entrenamenduak erresistentzia errendimendua hobetzen duela ezaugarri neuromuskularren hobekuntzagatik, hipertrofia alboratuz.


Erresistentziako errendimenduan eragina duen beste aldagaietariko bat  $VO_2\text{max}$ -eko lasterketa abiadura da. Abiadura maximoa  $VO_2\text{max}$  -arekin eta ekonomikoarekin erlazionatzeaz aparte, gaitasun anaerobikoarekin eta ezaugarri neuromuskularrekin lotua dago. Atletak gaitasun aerobikoa ( $VO_2\text{max}$ ) kontuan hartuta sailkatzen direnean potentzia anaerobikoak eta ezaugarri neuromuskularrek bereizten dute kirolari ezberdinen erresistentzia errendimendua. Nahiz eta gaitasun altuko kirolariak hobetzeko zailtasunak eduki, beraien errendimendua hobe dezakete indarra eta potentzia areagotuz. Honen adibide da Mikkola, J., Vesterinen, V., Taipale, R., Capostagno, B., Häkkinen, K., eta Nummela, A.-ek (2011) eginiko ikerketa, non 27 korrikalariak 8 asteko indar lana jasan zuten 3 multzotan banaturik (erresistentzia astuna, erresistentzia esplosiboa eta gihar erresistentzia lantzen zutelarik) eta ikusi zen korri egiteko zintaren gaineko errendimendua hobetu zutela aurreko entrenamenduaren ondoren, hurrengo irudian ikusi daitezke larrik.




Irudia 1. MART (Maximal Anaerobic Running Test) testaren abiadura-odol laktato kurba 8 asteko entrenamenduaren aurretik eta ondoren, talde ezberdinetan (Mikkola, J., Vesterinen, V., Taipale, R., Capostagno, B., Häkkinen, K., eta Nummela, A., 2011).

Rønnestad eta Mujika-k (2013) eginiko analisian aurkitu dute erresistentzia indarrari gehituriko pisu astunekin eginiko indar entrenamenduak VO<sub>2</sub>max-eko abiadura eta abiadura maximoan irauten den denbora hobetzen dutela. Lan honetan autoreek gihar zuntzen errekrutatzea errendimenduaren hobekuntzarako patroia potentzialtzat hartu zuten, indar eta erresistentzia entrenamendu konbinatuaren ondoren. Indar entrenamenduak mota I (geldoak) zuntzen indar maximoa handitzen du, beraien neke denbora atzeratzearekin batera, hain ekonomikoak ez diren II motako zuntzen (azkarrak) aktibazioa atzeratuz.


Errendimendua hobetzeko beste mekanismo garrantzitsu bat IIX motako zuntz azkarrak IIA motako zuntzetarako (nekearekiko erresistenteak diren zuntz azkarrak) bihurtzea da. Egia da korrika ez den txirrindularitza bezalako modalitatearen inguruko ikerketa dela baina Aagaard P, Anderson JL, Bennekou M, Larsson B, Olesen JL, Crameri R, Magnusson SP eta Kjaer M-ek (2011) egindakoan aurkitu zuten 16 asteko indar eta erresistentziako entrenamendu konbinatu baten ondorioz IIA motako zuntzen hazkuntza bat ematen zela. IIX motatik IIA motetarako trukeak erresistentziako errendimendua hobetzen du, izan ere, IIA motako zuntzek potentzia handiagoa sortzeko ahalmena daukate eta nekearekiko erresistenteagoak dira IIX zuntzekin alderatuz. Honek gihar efizientzia hobea eragiten du eta nekearen agerpen atzeratuagoa erresistentziaren errendimenduari begira.



*Irudia 2.- 16 asteko indar entrenamenduaren (SE) edo erresistentzia entrenamenduaren (E) hasierako eta amaierako emaitzak (watioetan) 5 minutuko "all out" txirrindu proban (Aagaard P, Anderson JL, Bennekou M, Larsson B, Olesen JL, Crameri R, Magnusson SP eta Kjaer M. , 2011).*




Irudia 3. 16 asteko indar entrenamenduaren (SE) edo erresistentzia entrenamenduaren (E) hasierako eta amaierako emaitzak (watioetan) 45 minutuko txirrindu gaineko erlojupeko proban (Aagaard P, Anderson JL, Bennekou M, Larsson B, Olesen JL, Crameri R, Magnusson SP eta Kjaer M. , 2011).




Irudia 4. 16 asteko indar entrenamenduaren (SE) edo erresistentzia entrenamenduaren (E) hasieran eta amaieran kuadrizeps giharretik harturiko gihar zuntz mota banaketa (Aagaard P, Anderson JL, Bennekou M, Larsson B, Olesen JL, Crameri R, Magnusson SP eta Kjaer M. , 2011).



Aurrekoaz gainera, indar entrenamenduaren ondoriozko gihar eta tendoi ezberdinen zurruntasunaren hobekuntza ere erresistentziaren errendimendurako mekanismo potentzialtzat identifikatua izan da. Korrika, oinkadaren luzatze-mozte zikloak fase eszentrikoan zehar egiten den lan mekanikoaren erdia suposatzen du. Hori dela eta, behe gorputz ataleko zurruntasun muskuloeskeletikoa lasterketa ekonomikoaren hobekuntzarekin lotua dago. Fouré, A., Nordez, A., McNair, P., eta Cornu, C.-ek (2011) egindako ikerketan 14 asteko entrenamendu pliometriko programa batek zurruntasunean eta jauzi egiteko gaitasunean zuen eragina aztertu zen. Ikusi zuten programaren ondoren artikulazioen zurruntasuna areagotu zela, energia elastiko biltegien hobekuntzarekin. Erresistentziaren errendimenduari buruz, indar entrenamendu esplosiboak behe gorputz ataleko zurruntasuna hobetzen du energia elastikoaren erabilera hobetuz eta korrikako energia kostua jeitsiz.



Irudia 5. a eta b taldeen artikulazioen zurruntasun-torke erlazioa 14 asteko entrenamendu pliometrikoaren hasieran (zuriz) ondoren (beltzez) (Fouré, A., Nordez, A., McNair, P., eta Cornu, C., 2011).



*Irudia 6. Osagai elastikoen zati aktiboaren zurruntasun indizearen desbiazio estandarra (a) eta osagai elastikoen zati pasiboaren zurruntasun indizearen desbiazio estandarra (b), 14 asteko entrenamendu pliometrikoaren hasieran (beltzez) eta amaieran (zuriz) (Fouré, A., Nordez, A., McNair, P., eta Cornu, C., 2011).*


### 2.3.- Orain arteko literatura zientifikoa

Aurreko ikerketak eredutzat hartuta, esan dezakegu indar maximo edo indar esplosiboaren entrenamendua dela korrikalarientzako egokiena. Erresistentzia entrenamenduari indar entrenamendu programa bat gehitzeak lasterketa ekonomia


eta ondorengo errendimendua hobe dezake, Balsalobre-Fernández, C., Santos-Concejero, J., eta Grivas, G. V.-ek (2015) eginiko analisisan ikusten den bezala. Hau are errazago ikusten da beste gaitasun guztiak oso garatuak dituzten korrikalarietan. Nahiz eta korrikalarien artean pisu gutxiko eta errepikapen askoko ariketek oihartzun handiagoa izan, errendimendua hobetzeko indar maximo eta indar esplosiboko entrenamendua ezinbestekoa da.

Hala ere, ikerketa guzti hauen helburuetariko bat eguneroko bizitara egokitzea da. Horretarako korrikalari herrikoiak kontzientziatu behar dira indar entrenamendu egoki batek onurak ekar ditzakeela beraiantzat. Argi dago korrikalari herrikoiek korrika beraien aisialdiko jardueratzat edukirik, korrika bakarrik egiten dutela eta ez dutela, normalean, korrikako errendimendua hobetzeko entrenamendu gehigarriak egiten, denbora faltagatik, jakintza ezagatik, nagikeriagatik... Korrika egitean bakarrik daude zentratu eta konturatu behar dira beraien korrika orduak murriztuz eta indar entrenamendua eginez, beraien errendimendua handiagoa izango dela. Honetaz aparte, esan beharra dago korrikalari herrikoiek desorekak eduki ohi dituztela beraien giharretan (Niemuth, P. E., Johnson, R. J., Myers, M. J., eta Thieman, T. J. ,2005) eta hauek ez badira konpontzen lesioak ager daitezke. Honetaz aparte, Frontera, W. R., eta Bigard, X.-ek (2002) eginiko ikerketan indar entrenamenduak korrikalariarentzako hainbat onura dauzkala ikusten da eta hau oso garrantzitsua da, izan ere, geroz eta helduagoak diren subjektuetan muskulu masa galera handia ematen da (Tzankoff, S. P., eta Norris, A. H. ,1977) eta galera hau balaztatzeko modurik onena gure entrenamenduan indar ariketak sartzea da, onura psikologikoak edukitzeaz gainera (Tsutsumi, T., Don, B. M., Zaichkowsky, L. D., eta Delizonna, L. L. ,1997). Gainera, aipatu behar da gizonezkoen eta emakumezkoetan egoten den ezberdintasuna muskulu masaren inguruan, gizonezkoek gihar handiagoak eta indartsuagoak baitauzkate eta (Miller, A. E. J., MacDougall, J. D., Tarnopolsky, M. A., eta Sale, D. G. ,1993). Txikitatik gizonak jarduera fisiko gehiago egin ohi du eta indar arloko jarduera gehiago egitera orientatua egon da. Emakumeak ordea modu ezberdin batean hezi dira kulturalki eta honetaz aparte, genetikoki nabari diren ezberdintasunak dauzkate, hala nola: gihar masa txikiagoa, kuadrizeps giharreko indar baxuagoa... Honen ondorioz, indar entrenamenduak garrantzi handiagoa


dauka emakumezkoetan, izan ere, emakumeetan indar entrenamendu baten ondorioz jasoko diren hobekuntzak gizonezkoetan baino handiagoak izango baitira.



Irudia 7. Giharretako indarra eta funtzio fisikoa. 5 urteren ondoren arazo funtzionalak dituzten subjektuen portzentaiak (Frontera, W. R., eta Bigard, X., 2002).



Irudia 8. Belauneko estentsoreen eskaner tomografiko baten bitartez determinaturiko sekzio-gurutzatutako area eta indar isokinetikoa. Adinaren (grisez) eta indar entrenamenduaren (zuriz) eragina (Frontera, W. R., eta Bigard, X., 2002).



*Irudia 9. Ukondoko flexorearen eta belauneko extentsoreen indar neurketak emakumeetan (zuriz) eta gizonezkoetan (marrekin) (Miller, A. E. J., MacDougall, J. D., Tarnopolsky, M. A., eta Sale, D. G., 1993)*

Gaur egun arte egin diren ikerketa zientifikoei erreparatzen badiegu, indarra lantzeko hainbat metodo erabiltzen dituzten ikerketak egin dira, korrikalari herrikoiekin nahiz elitekoekin baina batzuk indarra lantzeko metodo bakarrean zentratzen dira Taipale, R. S., Mikkola, J., Salo, T., Hokka, L., Vesterinen, V., Kraemer, W. J., ... eta Häkkinen, K.-ena (2014), Karsten, B., Stevens, L., Colpus, M., Larumbe-Zabala, E., eta Naclerio, F.-ena (2016) bezala; beste batzuk eliteko kirolarietan edo maila oneko korrikalarietan oinarritzen dira, Aagaard, P., eta Andersen, J. L.-ena (2010), Ramírez-Campillo, R., Álvarez, C., Henríquez-Olguín, C., Baez, E. B., Martínez, C., Andrade, D. C., eta Izquierdo, M.-ena (2014) eta Sedano, S., Marín, P. J., Cuadrado, G., eta Redondo, J. C.-ena (2013) adibidez eta beste batzuk lagin konkretu batean

bakarrik oinarritzen dira, Ferrauti, A., Bergermann, M., eta Fernandez-Fernandez, J.ena (2010) maratoilarietan eta Kelly, C. M., Burnett, A. F., eta Newton, M. J.-ena (2008) emakumeetan.

## **2.4.- Justifikazioa**

Beraz, literatura zientifikoak zituen hutsuneak ikusirik, ikerketa hau egitea iruditu zitzaigun, non aldapak, pisu bidezko ariketak eta sprintak bezalako indarra garatzeko metodo ezberdinak uztartzen diren planifikazio bat proposatu zitzaien korrikalari herrikoiei. Indarra lantzeko metodo ezberdinak erabiliz iruditzen zaigu aberastasun gehiago edukiko duela ikerketak eta kirolari batzuk metodo batekin beste batzuekin baino adaptazio hobekak lortuko dituztenez, modu ezberdinak erabiliz arazo hau gainditu dezakegu. Gainera, aukeratu ditugun metodoak korrikalari herrikoiei erabat egokituak daude, erraz egiten dira eta baliabide material gutxi behar dira hauek aurrera eramateko. Horregatik utzi ditugu albo batera ikerketa askotan erabili diren pisu handiko ariketak, hauek egiteko teknika egokia egiten jakin behar baita eta pliometria ariketak, korrikalarien esperientzia eskasa dela eta. Aurreko guzti honen ondorioz, gure lagina korrikalari herrikoiekin osatzea erabaki genuen, izan ere, gaur egun egon den korrikako lasterketa herrikoien handitzea hauei esker izan da eta korrika egiten duen jende gehienak korrika hobby moduan egiten du, elite mundua alde batera utziz.

## **3.- METODOLOGIA**

Jarraian ikerketa osatzen duten lagina, taldekatzea, datu-hartzeak zein analisi estatistikoa bezalako alderdi ezberdinak plazaratzen dira eta esan beharra dago, gizakiekin zein hauen laginekin aurrera eraman den ikerketa burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) etikako batzordearen txostena lortu dugula (1. eranskina). Honekin batera, partehartzaileei ikerketaren nondik-norakoak zein egingo zaizkien datu-hartze ezberdinak azaltzen dituen baimen informatu bat atxikitu da eranskinetan (2. eranskina).

### 3.1.- Lagina

Ikerketa honen lagina 8 kirolari herrikoiek (7 gizonezko eta emakumezko 1) osatu dute (hasierako 10 kirolarrietatik bik ikerketa bertan behera utzi zuten aurrez jasandako sendatu gabeko lesioen ondorioz), beraien batezbesteko adina, altuera, pisua eta 10km-ko denbora onena  $37,25 \pm 9,29$  urte,  $174,13 \pm 7,74$  cm,  $68,8 \pm 9,39$  kg ( $22,56 \pm 1,54$  GMI) eta  $39,17 \pm 2,42$  minutu izanik hurrenez hurren.

Taula 1. Ikerketan parte hartu zuten taldeen ezaugarriak.

Aldagaiak	Indarreko taldea	Indar gabeko taldea	Cohen's d
Altuera (cm)	$172,25 \pm 11,32$	$176 \pm 4,69$	0,4
Pisua (kg)	$66 \pm 12,75$	$71,6 \pm 6,96$	0,54
Adina	$42 \pm 4,16$	$32,5 \pm 12,23$	1,04
10km-ko marka (min)	$37,48 \pm 1,63$	$40,87 \pm 2,19$	1,75

### 3.2.- Taldekatzea

Errekrutatzea Ordiziako korrikalari herrikoien artean egin zen eta kirolariak bi taldeetan ausaz banatu ziren, talde bakoitzari entrenamendu mota ezberdin bat esleituz:

- Erresistentzia taldea: 6 asteko oinarrizko prestakuntza aldiaz, 4 asteko prestakuntza espezifikoz eta 2 asteko lehiaketa aldiaz osaturiko periodizazioa. Mikrozikloak osatuko dituzten aste hauek korrikako 5 saiok osatzen dute, lan jarrai estentsibo edo fartlek moduko 4 saiok eta lan tartekatu estentsibo luze edo ertaineko saio batekin. Prestakuntza aurrera joan ahala, lan jarraiak estentsiboetatik intentsiboetaranzko ibilbidea hartuko du eta lan tartekatuei dagokienez, estentsibo luze eta ertainetik intentsibo motzetara igaroko da periodizazioa, hasieran landuko den atalase anaerobikotik amaiera aldera landuko den atalase gaineko erritmoetara, hain zuzen ere, planifikazioa 10km-ko denbora hobetzera zuzendua egongo baita. Talde honek ez du indarra lantzeko inongo entrenamendurik egingo.

- Indar taldea: erresistentzia taldearen planifikazio berbera edukiko du erresistentziari dagokionez baina talde honek indar lan gehigarri bat egingo du planifikazioan zehar, honela banaturik:
  - Oinarrizko prestakuntza aldia: indarreko 2 saio, bat norberaren pisuarekin eginiko indar ariketen zirkuito bat eta bestea lasterketa jarrai bati gehituriko teknika bidezko aldapak (20 segunduko iraupena: skiping, skaping, zankada luzea eta sprint progresiboak amaitzeko)
  - Prestakuntza espezifikoa aldia: indarreko 2 saio, bat gimnasioko makina ezberdinez osaturiko zirkuito bat (pisu ertain eta abiadura altuko exekuzioak) eta lasterketa jarrai bati gehituriko atalaseko erritmoan eginiko iraupen ertaineko aldapak (1'-1'30"). Honetaz aparte lasterketa jarrai lasaieko saio batzuetan sprint progresibo batzuk egingo dituzte saioaren amaieran.
  - Lehiaketa aldia: indarreko saio bakarra, oinarrizko prestakuntza aldiko autokargen zirkuito berdina osatuko duena honetaz aparte, lasterketa jarrai lasaieko saioen ondorengo sprint progresiboak.

### 3.3.- Datu-hartzeak

Bi talde hauen bilakaera aztertzeko bi datu-hartze egingo dira, bat oinarrizko prestakuntza aldiaren hasieran eta bestea lehiaketa aldiaren amaieran eta ondorioak bi hauen arteko alderaketatik aterako dira. Esan beharra dago bi datu-hartze hauen egite ordua eta frogen ordena berdina izango dela (1-HJ, 2-SJ, 3-CMJ eta 4 Cooper) subjektuen disponibilitatea kontuan hartuta, denak Ordiziako Altamirako Atletismo pistan egingo direlarik. Datu-hartze hauetan 4 aldagai ezberdin neurtuko dira, non indarra neurtzeko lehenengo hiruak balidatua dagoen MyJump app-aren (Francis Bonnin eta Carlos Balsalobre-Fernandez & PacoLabs) bidez egingo diren, hala nola:

- High Jump (HJ): behe gorputzadarren indarra neurtzen du. Posizio zuzen batetik abiatuta, hankak alineaturik eta besoek laguntzarekin, subjektuek jauzi horizontal bat egin beharko dute (jauzia atletismo pistako hondarrezko fosoan egingo da).
- Squat Jump (SJ): indar explosiboa neurtzen du. Subjektuak jauzi bertikal bat egin beharko du sentadilla-erdiko posiziotik abiatuz, (belaunak 90°-tan



flexionaturik) enborra zuzen, oinak lurrean alineaturik eta eskuak gerrian dituelarik. Froga honetan debekatua dago beheranzko kontramugimendua.

- Countermovement Jump (CMJ): indar elastiko-explosiboa neurtzen du. Subjektuak jauzi bertikal bat egin beharko du beherantz egindako kontramugimendu azkar baten ondoren, posizio zuzen batetik hasita, hankak lurrean alineaturik eta eskuak gerrian daudelarik.
- Cooperra (erresistentzia testa): erresistentzia aerobikoa neurtzen du eta testa atletismo pista batean 12 minututan zehar korrika ahal den distantzia gehien egitean datza.


### **3.4.- Analisi estatistikoa**

Bi datu hartzeak egin ondoren, hauek alderatzeko analisi estatistiko bat egingo da, non balio guztiak bataz bestekoaz zein desbiderazio estandarren bitartez (DS) adieraziak egongo diren. Honetaz aparte, lagin tamaina txikiaren ondorioz, efektu tamainen (ET) edo ezberdintasunen magnitudea bakarrik kalkulatu da *Cohen's d* frogaren bitartez (Cohen, 1988) eta txikiak, ( $>0.2$  y  $<0.6$ ), ertainak ( $\geq 0.6$  y  $<1.2$ ), handiak ( $\geq 1.2$  y  $<2$ ) edo oso handiak ( $\geq 2.0$  y  $<4$ ) bezala interpretatuko dira Hopkinsek (2006) proposaturiko eskala aintzat hartuta.

## **4.- EMAITZAK**

### **4.1.- Erresistentzia taldea**


Emaitzak orokorrean hartuta, lehenengo irudian ikus daiteken bezala, indarreko entrenamendua egin ez duten taldeko partehartzaileek beraien baloreak okertu dituzte SJ ( $35,08 \text{ cm} \pm 3,63$  pre –  $29,85 \text{ cm} \pm 3,95$  post) eta CMJ ( $38,45 \text{ cm} \pm 5,60$  pre -  $35,10 \text{ cm} \pm 5,08$  post) aldagaietan, emaitza antzekoak egin dituzte HJ-ean ( $198,75 \text{ cm} \pm 12,41$  pre –  $199,75 \text{ cm} \pm 10,68$  post) eta Cooperrean beraien amaierako emaitzak hasierakoak gainditu dituzte ( $3082,5 \text{ m} \pm 125,79$  pre –  $3205 \text{ m} \pm 42,03$  post). Efektu tamaina aztertuta, efektu tamaina txikia izan du HJ aldagaiak (0,08), efektu tamaina ertaina CMJ-ak (0,62) eta efektu tamaina handia lortu duten aldagaiak SJ (1,37) eta Cooperra (1,3) izan dira.



*Irudia 9. Indar entrenamendua egin ez dutenen bilakaera aldagai ezberdinetan.*

## 4.2.- Indar taldea


Bigarrenengo irudian ikusten den bezala, indarreko entrenamendua jasan duten subjektuek beraien baloreak hobetu dituzte SJ ( $29,95 \text{ cm} \pm 7,04 \text{ pre} - 31,03 \text{ cm} \pm 5,70 \text{ post}$ ), HJ ( $203,25 \text{ cm} \pm 33,78 \text{ pre} - 210 \text{ cm} \pm 36,12 \text{ post}$ ) eta Cooperren ( $3292,5 \text{ m} \pm 123,65 \text{ pre} - 3315 \text{ m} \pm 46,54 \text{ post}$ ) eta okertu CMJ-an ( $37,83 \text{ cm} \pm 12,31 \text{ pre} - 37,55 \text{ cm} \pm 9,37 \text{ post}$ ). Hala ere, aldaketa hauek ez dira esanguratsuak, 4 aldagaietako efektu tamaina txikia izan baita (SJ 0,16, CMJ 0,02, HJ 0,19 eta Cooper 0,24).



*Irudia 10. Indar entrenamendua egin dutenen bilakaera aldagai ezberdinetan.*

#### **4.3.- Taldeen arteko alderaketa**

Hirugarrenengo irudian indar taldeak eta indarra egin ez duen taldearen arteko alderaketa ageri da amaierako emaitzei erreparatuz. Orokorrean ikus daiteke indar taldekoek balore hobekak eman dituztela aldagai guztietan (SJ 31,03 cm ± 5,70 post vs 29,85 cm ± 3,95 post, CMJ 37,55 cm ± 9,37 post vs 35,10 cm ± 5,08 post, HJ 210 cm ± 36,12 post vs 199,75 cm ± 10,68 post eta Cooper 3315 m ± 46,54 post vs 3205 m ± 42,03 post), baina beste taldearekin alderatuta efektu tamaina txikia dela esan daiteke aldagai guztietan, Cooperrean izan ezik (SJ 0,24, CMJ 0,32, HJ 0,38 eta Cooper 2,48).



Irudia 11. Indar entrenamendua egin dutenen eta egin ez dutenen arteko amaierako alderaketa aldagai ezberdinetan.

Taula 2. Talde ezberdinen alderaketa aldagai ezberdinen arabera.

Taldeak	Cohen's d			
	SJ	CMJ	HJ	Cooper
Indarra pre-post	0,16	0,02	0,19	0,24
Indarrik ez pre-post	1,37	0,62	0,08	1,3
Indarra-Indarrik ez post	0,24	0,32	0,38	2,48

Bigarrenengo taula honetan talde ezberdinetako aldagaien arteko ezberdintasuna ageri da *Cohen's d*-aren bitartezko efektu tamaina erabiliz. Hopkins-en eskala erreferentziatzat hartuta ageri da efektu tamaina handiak indarra egin ez duten SJ frogan eta indarreko entrenamendua egin ez duten zein bi taldeen arteko Cooperrean. Efektu tamaina ertaina indarreko entrenamendua egin ez duten CMJ aldagaian dago eta gainerako beste baloreak efektu tamaina txikiaren barne sartzen dira.

## 5.- EZTABAIDA

### 5.1.- Literatura zientifikoarekiko alderaketa

Lehenik eta behin, aipatu behar da gure ikerketak lagin kantitate nahiko txikia eta desorekatua (7 gizonezko eta emakumezko 1) izan duela beste hainbat ikerketekin alderatuz (Taipale, R. S., Mikkola, J., Salo, T., Hokka, L., Vesterinen, V., Kraemer, W. J., ... eta Häkkinen, K. ,2014-koan 34 subjektu, Karsten, B., Stevens, L., Colpus, M., Larumbe-Zabala, E., eta Naclerio, F.-enen 2016-koan 16...) eta honek hasiera-hasieratik baldintzatu ditu ikerketaren ondoren ateratzen ditugun konklusio zein baieztapenak, ezingo baitira populazio handi batera orokortu. Honekin lotuta, ikerketa askotan, Aagaard, P., eta Andersen, J. L.-enean (2010) bezala, goi mailako kirolariak hartu dira ikerketa egiteko. Honek alde onak eta txarrak ditu. Alde batetik, kirolari hauen esperientzia altua dela eta mota guztietako ariketak egin ditzakete eta psikologikoki prestatuak daude exigentzia fisiko handia eskatuko dieten edozein lan egiteko. Bestalde, ondorioak ateratzerako orduan ezingo dira korrikalari herrikoiei orokortu, hurbilketa bat egin daiteke baina argi eduki behar da bi subjektu mota ezberdinekin lan egiten ari garela. Taldeak banatzerako orduan ere argi eduki genuen gure lagina bi taldeetan banatuko genuela, indarreko entrenamendua egingo zutenen hobekuntza handiagoa aztertzeko asmoarekin. Literatura zientifikoa osatzen zuten ikerketa gehienetan ere taldeak indar entrenamendu ezberdinaren arabera banatu ohi izan dira, beraien arteko ezberdintasunak alderatzeko asmoarekin, hala nola: Taipale, R. S., Mikkola, J., Nummela, A., Vesterinen, V., Capostagno, B., Walker, S., ... eta Häkkinen, K. (2010).

Bigarrenik, indar entrenamenduak iraungo duen aste kantiteari dagokionez, esan beharra dago ikerketa bakoitzak aste kopuru ezberdinak erabiltzen dituela indar entrenamendua egiteko, Karsten, B., Stevens, L., Colpus, M., Larumbe-Zabala, E., eta Naclerio, F.-enen (2016) 6 asteetatik hasita, Rønnestad, B. R., Hansen, E. A., eta Raastad, T.-en (2012) 12 asteetara arte, beraz gure ikerketa ere aste kopuru horien artean kokatzen da.

Indar entrenamendu motari edo subjektuek egin beharreko ariketa motei dagokienez, ikerketa gehienetan indar maximoko ariketak (Beattie, K., Kenny, I. C., Lyons, M., eta

